



## KONTRATAZIO ORGANOAREN ESLEIPENARI BURUZKO EBAZPENA

ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAK DEITUTAKO LEHIAKETA, PROZEDURA IREKIAZ,  
HONAKO KONTRATU HAU ESLEITZEKO: EEE TALDEAREN BIZI ETA ISTRIPUEN POLIZA  
KONTRATATZEKO

ESPEDIENTE ZENB.: ESG/14/004

**PILAR URRUTICOCHEA URIARTE andreak**, ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN kontseilari-zuzendari nagusi den aldetik, EEE TALDEAREN BIZI ETA ISTRIPUEN POLIZA KONTRATATZEKO, prozedura irekiaz esleitzeko, deitutako lehiaketan,

### ADIERAZTEN DU

Kontratazio batzordeak egindako proposamenarekin bat etorriz, eta 2014ko abenduaren 16 datarekin, ekonomikoki proposamen egokiena egin zuen esleipendunak, emandako hamar (10) egun balioduneko epearen barruan, legez eskatzen zaion dokumentazio guztia aurkeztu ondoren,

### EBATZI DU

- I. EEE TALDEAREN BIZI ETA ISTRIPUEN POLIZA KONTRATATZEKO xede duen kontratua **VIDA CAIXA S.A. DE SEGUROS y REASEGUROS** elkarteari esleitzea, enpresa horrek **86,08 puntu** lortu baitzuen, B gutun-azalaren (iritzi bidez ebaluatu ahal diren irizpideak) eta C gutun-azalaren (formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak) guztizko puntuazio handiena eskuratuta.
- II. Esleipen honen berri ematea, SPKLTBren 151. artikuluan xedatutakoa betez, eta kontratatzailearen profilean argitaratzea.
- III. Kontratuaren formalizazioa egitea hamabost (15) egun balioduneko epea igaro aurretik, esleitzeko ebazpen hau lizitatzailleek eta hautagaiek jasotzen duten egunetik kontatzen hasita.
- IV. Esleitzeko ebazpen honen kontra, borondatezko izaerarekin, gorako errekurtsio aurkeztu ahal izango da organo horren aurrean, hilabeteko epearen barruan, ebazpen honen berri ematen den egunaren biharamunean kontatzen hasita, edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke dagozkien organo judizialen aurrean, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita, administrazio publikoen arautze juridikoaz eta prozedura administratibo



erkideaz diharduen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluen arabera eta administrazioarekiko auzi-bideen jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin bat etorriz.

Bilbon, 2014ko Abenduaren 29an.

---

Pilar Urruticoechea Uriarte and.  
EEEko kontseilari-zuzendari nagusia